



BAKEAREN ALDEKO ADIERAZPENA

Ospa dezagun Bizitza. Erein dezagun Bakea

Familia marista osoak —ikasleak, anaia maristak, hezitzaileak, kateketak, begiraleak, animatzaileak, entrenatzaileak eta familiak; langileak eta boluntarioak; gizarte-lanak, ikastetxeak eta komunitateak— bakearekiko bere konpromiso sendo eta apurtu ezina berresten du, gaur inoiz baino gehiago kezkatuta baitago gerraren indarkeria itsuaren eta munduko hainbat lekutan gehiegi zabaltzen ari den bortizkeriaren aurrean.

Ukrainako, Gazako, Sudango eta beste hainbat lekutako gatazkek eragiten duten sufrimenduak mintzen gaitu oraindik, hala nola Yemenen, Myanmarren, Sahelen...

Heriotza, suntsiketa eta etsipena zabaltzen duten gerra guztiek, terrorismoak eta indarkeriak gizateriari eragindako zauriak dira oraindik. Eta, Champagnat-en marista garen heinean, sinesten dugu Jesusen irakaspenek erakutsi ziguten bakearen bidea dela egiazko eta posible den bakarra.

Beste batzuetan adierazi dugun bezala, pertsona desberdinekiko intolerantzia hedatzeak kezkatzen gaitu, diskriminazio-, gorroto- eta indarkeria-jokabide askoren oinarri baita; jokabide horiek pertsonaren duintasunari, askatasunari eta gizaki guztien berezko eskubideberdintasunari kalte egiten diote. Hori guztiagatik, tolerantzian, bakean eta adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzarako deia berresten dugu.

Herritarrak eta erakunde demokratikoak bakearen kulturarekin duten konpromisoa indartzera gonbidatzen ditugu; hots, bizitza errespetatzera, indarkeriari amaiera ematera eta elkarrizketaren, lankidetzaren eta, bereziki, tolerantziarako eta bakerako hezkuntzaren bidez indarkeriarik gabeko bidea sustatzera.

Bizitzarekiko errespetua, pertsonen duintasunarekiko begirunea, giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen defentsa eta sustapena aldarrikatzen ditugu, baita gatazken konponbide baketsuaren aldeko konpromisoa ere. Horretarako ezinbestekoa da askatasunaren, justiziaren, demokraziaren, tolerantziaren, elkartasunaren, lankidetzaren, aniztasun kultural eta sozialaren, elkarrizketaren eta elkar-ulertzearen printzipioak une oro besarkatzea.

Horrenbestez, gizarte osoaren erantzukizun handia gogoratzen dugu, bereziki hezkuntza-komunitateekin, gizarte-erakundeekin eta komunikabideekin lotuz, papera ezin da baztertu, eta gobernuek funtsezko zeregina dute elkarbizitza, tolerantzia eta justizia sustatuz bakea eraikitzeko.





Manifestu hau Leon XIV Aita Santuak etengabe egindako bakearen aldeko otoitz deiarekin bat dator. Nahi dugu munduko otoitz- eta barau-egunak bizirik iraun dezatela, eta oroitaraz diezagutela barkamena dela bakea lortzeko baldintza nagusia. Fededun bezala, gure ahotsa eta gure eskaera ozen entzun dadin nahi dugu: gatazkak dauden toki guztietan bakea berreskuratu eta su-etena behin betikoa izan dadila. Gerrak ez du inoiz ezer konpontzen. Aita Santuarekin batera, diplomaziarako eta justizian, duintasunaren zaintzan eta errespetuan oinarritutako gizarte baketsuen eraikuntzarako deia egiten dugu.

Deialdi hau, gure konpromiso bakezalea indar handiagoz berritzera bultzatzen gaituena, gobernarietara eta erantzukizun politiko eta sozialak dituzten guztietara zuzentzen diegu; baita elizaren komunitateetako arduradunei eta animatzaileei, eta borondate onezko emakume eta gizonei ere.

Champagnat-en Marista garen heinean, aurrera jarrai dezagun, ausardiaz eta itxaropenez, hiru bide hauetan: belaunaldien arteko elkarrizketa, hezkuntza eta lana. Zabal dadila egunero zaratarik gabe, apaltasunez eta irmotasunez bakearen artisau bihurtzen diren pertsonen kopurua.

Azken batean, gure ahotsa Aita Santuarenarekin eta munduko anai-arreba askorenarekin, gure otoitza entzun dadin batzen dugu. Gonbidatzen ditugu guztiak bakearen aldeko ekimen orotan parte hartzera; beharrezko, ezinbesteko eta premiazko desio honetan: bakezko mundu bat eraikitzea eta berreskuratzea. Beti lagun gaitzala bakearen Jainkoaren bedeinkazioak. Bizitza ospa dezagun. Bakea erein dezagun.





CELEBREMOS LA VIDA

MANIFIESTO POR LA PAZ

Celebremos La Vida. Sembremos La Paz

Toda la familia marista —estudiantes, hermanos, educadores, catequistas, monitores, animadores, entrenadores y familias; trabajadores y voluntarios; obras sociales, colegios y comunidades—, reafirma su compromiso firme e inquebrantable con la paz, preocupada hoy más que nunca por la persistencia de guerras indiscriminadas y la proliferación de la violencia en demasiadas partes del mundo.

Nos sigue doliendo el sufrimiento causado por los conflictos existentes en Ucrania, Gaza, Sudán... así como otros que continúan provocando muerte, destrucción y desesperanza en países como Yemen, Myanmar, la región del Sahel... En general, todas las guerras, terrorismo y violencia del mundo siguen siendo azotes para la humanidad, y como Maristas de Champagnat, seguimos creyendo que solo el camino de la paz, el que Jesús nos enseñó, es válido y posible.

Como hemos manifestado en otras ocasiones, nos preocupa la extensión de la intolerancia hacia las personas diferentes, sobre la que se asientan muchas conductas de discriminación, odio y violencia; que dañan la dignidad de la persona, su libertad e igualdad de derechos inherentes a todos los seres humanos. Por todo ello, reiteramos nuestra llamada a una convivencia en tolerancia, paz y concordia.

Invitamos a toda la ciudadanía y a las instituciones democráticas a fortalecer su compromiso con la cultura de paz; lo cual implica el respeto a la vida, el fin de la violencia y la promoción y práctica de la no violencia por medio del diálogo, la cooperación y, en especial, de la educación para la tolerancia y la paz.

Imploramos ese respeto, así como el de la dignidad de las personas y la defensa y promoción de los Derechos Humanos y las libertades fundamentales; además del compromiso con la resolución pacífica de los conflictos. Para ello, es esencial también abrazar siempre y en todo momento los principios de libertad, justicia, democracia, tolerancia, solidaridad, cooperación, pluralismo, diversidad cultural y social, diálogo y entendimiento.

Recordamos, en consecuencia, la importante responsabilidad de la sociedad en su conjunto, conectando especialmente con las comunidades educativas, las instituciones sociales y los medios de comunicación en la construcción y fortalecimiento de una auténtica cultura de paz. La sociedad





CELEBREMOS LA VIDA

civil tiene un papel irrenunciable y los gobiernos una función primordial en la promoción de la convivencia, la tolerancia y la justicia que cimentan la paz.

Este manifiesto enlaza con las constantes peticiones del Papa León XIV de rezar por la paz. Deseamos que el espíritu de las jornadas mundiales de oración y de ayuno por la paz se mantenga vivo y nos ayude a recordar que el perdón es requisito fundamental para alcanzarla. Queremos que, como fieles, se oiga nuestra voz y nuestro ruego insistente para recuperar la paz en toda zona de conflicto y que se logre un alto el fuego definitivo en todas las regiones afectadas. La guerra nunca es la solución de nada. Junto al Pontífice, llamamos a la diplomacia y a la construcción de sociedades pacíficas basadas en la justicia, la dignidad, el cuidado y el respeto.

Este llamamiento, que nos alienta a renovar con más fuerza nuestro compromiso pacifista, lo hacemos extensible a gobernantes y a toda persona con responsabilidades políticas y sociales; a los pastores y a los animadores de las comunidades eclesiales, y también a todos los hombres y mujeres de buena voluntad.

Animamos, como Maristas de Champagnat, a seguir avanzando, conjuntamente, con valentía y esperanza, por estos tres caminos: el diálogo entre las generaciones, la educación y el trabajo. Que crezca el número de quienes, sin hacer ruido, con humildad y perseverancia, se conviertan cada día en artesanos de paz.

Unimos, en definitiva, nuestra voz a la del Papa, y a la de tantos hermanos y hermanas en el mundo, para que nuestra plegaria sea escuchada. Invitamos a sumarnos a toda iniciativa en busca de alcanzar este deseo necesario, imprescindible y urgente: construir y recuperar un mundo de paz. Que siempre nos acompañe la bendición del Dios de la paz. Celebremos la vida. Sembremos la paz.

